

BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA. Mahai Nazionaletakoko kide izandako 13 lagunek manifestua kaleratu dute

HB «ETaren menpeko» ez zela diote hamahiru mahaikide ohik

Garzonen ebazpenak «larritzat» jo dituzte

Humberto Unzueta | **BILBO**

Herri Batasuna ez zela ETatik sortu adierazten duen manifestu bat plazaratu zuen HBko mahai nazionalako kide ohi talde batek, atzo Bilbon. Ekimenarekin Baltasar Garzon epailearen ebazpenen argudio nagusiaren aurka egin nahi dute sinatzaileek, bereziki azken autoaren aurka. Honen arabera, hogeitabat mahaikidek Espainiako Auzitegi Nazionalaren aurrean deklaratu beharko dute heldu den osatiralean, ETAko kide izatea leporatuta.

Manifestuaren berri emateko prentsa agerraldian HBko lehen Mahai Nazionalako kide izan ziren Patxi Zabaleta, Iñaki Aldekoa, Francisco Letamendia Or-

tzi eta Xabier Sanchez Erauskin izan ziren. Horietaz gain, beste bederatz mahaikide ohik sinatzen dute idatzia: Iñaki Esnaola, Iñaki Ruiz de Pinedo, Jose Miguel Agirre, Javier Añua, Mikel Arbeloa, Miren Egaña, Josu Goia, Javier Palacios eta Jesus Perez de Viñasprek. Guztiak HBko mahaikideak izandakoak, egun jarrera politiko desberdinak ordezkatzen dituzten arren.

Sinatzaileek ukatu egiten dute HB antolaketa eta politika mailan inoiz «ETaren menpeko» izan zenik, baita erakunde armatuaren «aginduak betetze» sortu zenik ere. Guztiz bestera, talde politikoa eta borroka armatu politikoa egiten duten erakundeak ideia eta helburu politiko batzuetan bat etortzea



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Patxi Zabaleta, Xabier Sanchez Erauskin, Iñaki Aldekoa eta Francisco Letamendia, atzo Bilbon.

«sarri gertatzen den fenomeno unibertsala» dela azpimarratzen dute.

Bat etortze ideologikoak badaudela ukatzen ez duten arren, ETaren eta HBren artean desadostasun eta desberdintasun politiko garrantzitsuak izan direla diote. Sinatzaileek beren «testigantza» egin dute bi erakundeen arteko

«independentzia organikoa eta politikoa» egiaztatzeko.

Garzonen ebazpenei eta Alderdien legegari ikuspegi demokratiko batetik «atzerapausoak» deritzote eta gehiegikeria juridikoa eta akats politiko «oso larritzat» jotzen dituzte. Garzonen ekimenek zein Alderdien legeak bakea lortzeko aukera «urrundu egiten» dutela

gaineratzen dute. Azkenik, «elkartasun pertsonala eta politikoa» adierazi diote Alderdien legeak zein Garzonen erabaki judizialek erasandakoei.

Hain zuzen ere, Garzonen azken autoa «salatzeko» da manifestugileen arrazoi nagusietako bat. Epaileak 20 pertsona deitu ditu etzidamurako, ETAko kide izana leporatuta.

Erredakzioa | **DONOSTIA**

LAB sindikatuak bat egin du abenduaren 13, 14 eta 19an «Euskal Herriaren kontrako erasoak» salatzeke egingo diren mobilizazioekin. Rafa Diez LABeko idazkari nagusiaren esanetan, «orain inoiz baino gehiago, kalera atera eta gure duintasuna defendatu beharra dugu», Euskal Herria «ezin baita legez kanpo utzi eta mapatik ezabatu». Hala, langileei eskatu zien abenduaren 19an lan-uzteak egin eta «duintasun nazionalaren egunean» parte har zezatela.

«Asko eta asko gara, azaroaren 30ean Donostiako kaleetan ikusi zen moduan, Euskal Herriko egoera larriaz kezkatutik gauden herritarrek», esan zuen Diezek. Haren arabera, erantzun «indartsu» eta «herritarra» bideratu behar da esparru denetan, herritar talde batek egindako deialdiari jarraiki. Izan ere, «euskal nortasunaren adierazpen oro kolpatzen» dutela dio, Espainiako eta Frantziako estatuen «begipuntuan Euskal Herriaren existentzia bera dagoelako».

LABeko idazkari nagusiak esan zuenez, «penagarria» da Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak «urduritasunez»

Abenduaren 19an lan-uzteak egiteko eskatu du LABek, «duintasun nazionalaren alde»



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Txutxi Ariznabarreta eta Rafa Diez, atzo LABen Donostiako egoitzan.

RAFA DIEZ USABIAGA

LABeko idazkari nagusia

«Francoren garaian bezala, Elizak berriro sutara bota du euskal nazionalismo dena»

tuela uste du. «Zer gertatu behar du herri honetan EAJK, EAK eta EB-IUK erasoei duintasunez eta koherentziaz aurre egin diezaieten?», galdetu zuen.

«Indarkeria oro» desagertzeko «Euskal Herriaren kontrako etengabeko jazarpena

desagertzea funtsezkoa da», haren hitzetan, eta estatuek, «konponbideak bilatu ordez», «marea beltza» eragiten dute Euskal Herrian.

Eliza eta enpresaburuen laguntza

Diezek dioenez, «abertzaletasun konstituzionalaren teoria» hedatzeko, politikariek gain Elizak eta enpresaburuek ere hartu dute esku, eta Espainiako esparru guztiak «kutsatu» nahi dituzte. «Francoren garaian bezala, Elizak berriro sutara bota du euskal nazionalismo dena». Enpresaburuek, berriz, jendea «beldurtu» dute Euskal Herria txarrera aldatuko dela esanez; «xantaia» egiten dute, haren esanetan.

«Aldaketa politikorako prozesua oztopatzea» dute helburu, Diezen arabera, eta horregatik hartu dituzte «neurri antidemokratikoak prozesurako giltza izan den sektore politikoaren kontra». Horrek «Estatuaren ahultasuna» uzten bide du agerian. «Edozer» egiteko prest daudela uste du; lege kanporatzeak eta «HB eta Batasuneko 22 bururen auzipetzeak» aipatu zituen. «Bakea eta askatasuna lortzeko», prozesu politikoan «sakontzen» jarraituko du LABek.